



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko otsailaren 10a

29. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, zergadunak zoru-klausulei dagokienez babesteari buruzkoa. Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Jabeldura, Nafarroako politika demografikoari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (6. or.).

—Jabeldura, udalez gaindiko plan sektorialen gaineko politika orokorrari buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Estatuko Aurrekontu Orokorren Lege proiektuan jaso dezan “Memoria Historikoaren Legea” izeneko kontu-sail bat. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alargun-pentsioaren kenkaria, aurrerakina eta osagarria 2017rako ezarritako LGSaren arabera gaurkotu ditzan. Nuria Medina Santos andreak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten ditu Hezkuntza eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako departamentuek egindako kanpainak, eskola-aurreinskripzioa egiteko epearen berri ematekoak. Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, talde politikoen ordezkariak eta Gizarte Zerbitzuen Zorroan jasotako esparru guztietako hirugarren sektoreko erakundeen ordezkariak osatuta, zorroan jasotako programak, prestazioak eta zerbitzuak berrikusteko. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernua premia dezan 705/1999 Errege Dekretuko 2. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzera, halako moduan non langabezia-kontingentzia jasoko duten hitzarmen bereziak sinatzen ahalko baitira Gizarte Segurantzarekin. Mikel Buil García jaunak aurkeztu du (11. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza digitalera iragateko estrategia bat taxutu dezan, Foru Erkidegoko haur hezkuntzako ikastetxe, eskola, institutu, lanbide heziketako ikastetxe eta unibertsitate guztiak garai berrietara egokitzeko. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan Nafarroako herrietako pintada bandalikoak ezabatzeko. Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alargun-pentsioak 2017rako ezarritako lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoraino osa ditzan. Maribel García Malo andreak aurkeztu du (15. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu gizartearen eta Tarajaleko Biktimen Senitartekoen Elkartearen eskaerarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (16. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu arbuiatu egiten duela jarduketa kultural kaltegarria den emakumeen genitalen ebaketa. Eledunen Batzarrak onetsia (16. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere egiten baitu Nafarroako emakumezko alargunekiko konpromisoa, haien pentsioak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzen dituen osagarri ekonomikoa mantentzain. Eledunen Batzarrak onetsia (17. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere egiten baitu elkarrizketa soziala, Nafarroako Foru Komunitaterako garapen ekonomiko eta sozial orekatu bat lortzeko osagarri funtsezko eta estrategiko gisa. Eledunen Batzarrak onetsia (17. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu bere babesa ematen diola Sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua ezartzen duen azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretuari. Eledunen Batzarrak onetsia (18. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu “Mi Voto Cuenta” ekimenarekin, kontzientziazte aldera boto eskubidea, informaziorako sarbidea eta hauteskunde prozesua babestearen garrantziaz, herritar guztiendako baldintza-berdintasunean. Eledunen Batzarrak onetsia (18. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, biztanleria aktiboaren gaineko azken inkestak direla-eta Eskubide Sozialetako kontseilariak aipatutako aldaketa metodologikoei buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (19. or.).
- Galdera, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Foru Legea garatzeko planean jasotako ardatz estrategiko bakoitzerako esleitutako aurrekontuari buruzkoa. Ana San Martín Aniz andreak egin du (20. or.).
- Galdera, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Foru Legeak garatutako neurriei buruzkoa. Ana San Martín Aniz andreak egin du (20. or.).
- Galdera, hondakinei buruzko 2017tik 2027ra bitarteko Planean errefus-zatiari ematen zaion tratamenduari buruzkoa. María Carmen Segura Moreno andreak egin du (21. or.).
- Galdera, hondakinak instalazio txiki eta ertainetan balorizatzeari buruzkoa. María Carmen Segura Moreno andreak egin du (21. or.).
- Galdera, Tokiko Mapa Hondakinei buruzko 2017tik 2027ra bitarteko Planarekin uztartzeari buruzkoa. María Carmen Segura Moreno andreak egin du (22. or.).
- Galdera, Góngora handitzeari eta Iruñerriko balizko zabortegiei buruzkoa. María Carmen Segura Moreno andreak egin du (23. or.).
- Galdera, 14/2015 Foru Legeko ekintza planean aurreikusitako neurriei buruzkoa. Ana San Martín Aniz andreak egin du (23. or.).
- Galdera, biztanleria aktiboaren gaineko inkestaren kalkuluari begira Estatuko Estatistika Institutuak egindako aldaketa metodologikoei buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (24. or.).
- Galdera, “Nuevo Futuro Navarra” elkartearikiko hitzarmena berritzeari buruzkoa. Mónica Domenech Linde andreak egin du (25. or.).
- Galdera, Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen ez duten D ereduko ikasliburuei edo beste edozein euskarriri buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (25. or.).
- Galdera, 2017-2018 ikasturterako aurreinskripzioa egiteko epeaz informatze aldera Euskararen Nafar Institutuak egindako kanpainaren gastuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (26. or.).

- Galdera, Fiteroko kontsultategi medikoaren egoerari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (26. or.).
- Galdera, LOMCEk Lehen Hezkuntzako seigarren mailaren amaierarako ezartzen duen kanpo-ebaluazioari buruzkoa. María Esther Korres Bengoetxea andreak egin du (27. or.).
- Galdera, LOMCEk Batxilergoko 2. mailaren amaierarako ezartzen duen kanpo-ebaluazioari buruzkoa. María Esther Korres Bengoetxea andreak egin du (28. or.).
- Galdera, LOMCEk Lehen Hezkuntzako hirugarren mailaren amaierarako ezartzen duen kanpo-ebaluazioari buruzkoa. María Esther Korres Bengoetxea andreak egin du (29. or.).
- Galdera, LOMCEk Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailaren amaierarako ezartzen duen kanpo-ebaluazioari buruzkoa. María Esther Korres Bengoetxea andreak egin du (31. or.)

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Kontuen Ganberako 2017. urterako plantilla organikoa eta 2016ko abenduaren 31ko funtzionario-zerrenda (33. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, zergadunak zoru-klausulei dagokienez babesteari buruzkoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artiku-luak aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak Foru Lege proposamena aurkeztu du zergadunak zoru-klausulei dagokienez babesteari buruzkoa, eta irakurketa bakarrean izapidetzea eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERA-BAKIA:

**1.** Zergadunak zoru-klausulei dagokienez babesteari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argi-tara dadin agintzea.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. arti-kuluan ezarritako ondorioetarako.

**3.** Foru lege proposamen hori irakurketa baka-rreko prozeduraz izapidetzea.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aur-keztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **Foru lege proposamena, zergadunak zoru-klausulei dagokie- nez babesteari buruzkoa**

#### ZIOEN AZALPENA

2013ko maiatzaren 9an, Auzitegi Gorenak zoru-klausulen neurrigabetasuna aztertu zuen

241/2013 zenbakidun epaian, eta klausula horien deuseztasuna deklaratu zuen. Hala ere, deusezta-sunak ez zuen eraginik izanen gauza epaituaren indarra duten ebazpen judizialen bidez behin beti-koz erabakitako egoeretan, ez eta 2013ko maia-tzaren 9a baino lehen ordaindutako kopuruetan.

Auzitegi Gorenak denbora-muga ipini zion a-tzeraeraginari. 2015eko martxoaren 25eko epaia-ren bidez, Auzitegi Gorenak a-tzeraeraginkortasunaren muga berretsi zuen. Doktrina gisa hauxe ezarri zuen: 2013ko epaian ezarritako doktrina aplikatzearen ondorioz zoru-klausula bat neurrigabetzat jotzen denean, maile-gu-hartzaileari 2013ko epaiaren argitaratze-datatik aurrera ordaindutakoa itzuliko zaio.

Hala ere, Espainiako zenbait auzitegiak, Euro-par Batasunaren zuzenbidean oinarrituta, zalan-tzan jarri zuten Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurre-an, auziaurreko zenbait igorpenen bidez. 2016ko abenduaren 21ean, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak C-154/15, C-307 /15 eta C-308/15 gai-er buruzko epaia eman zuen, eta epai horretan eran-tzuna eman zien aurkeztutako auziaurreko arazo-ei.

Epai horren bidez, Justizia Auzitegiak esan du Kontsumitzaileekin egindako kontratu-erako abusuzko klausulei buruzko Kontseiluaren 93/13/EEE Zuzentarauaren 6.1. artikulua zentzu honetan interpretatu behar dela: hain zuzen ere, aurka egi-ten diola harako jurisprudentzia nazionalari, zeina-ren bidez denbora-muga ezartzen baitzaio kontsumitzaile baten eta profesional baten arteko kontratu bateko klausula baten abusuzko izaera-ren deklarazioarekin –zuzentarauaren 3.1. artiku-luaren arabera– lotura duen itzulketa-eraginari, halako moldez non itzulketa-eragin horiek muga-tzen diren aipatu klausularen abusuzko izaera deklaratu zuen ebazpen judiziala eman zenetik aurrera klausula hori aplikatzearen ondorioz bide-gabeki ordaindutako kopuru-erara soilik.

Horren ondorioz, 2017ko urtarrilaren 21ean argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean Zoruklausulen alorrean kontsumitzaileak babesteko premiazko neurriei buruzko urtarrilaren 20ko 1/2017 Errege Lege-dekretua. Zioen azalpenean adierazten denez, araudi berriaren xedea da “bide erraz eta ordenatua ezartzea, kontsumitzailearentzat borondatezkoa izanen dena, ahalbidetuko duena kreditu-entitatearekin akordio batera iristea, haien arteko desadostasunak kopuru horien itzulketaren bidez konpontzeko”. Kontuan hartuta itzulketa horrek eragin fiskalak sortzen dituela, horretaz gain arautzen da entitate finantzarioekin eginiko akordioetatik eratorritako maileguen interes-tipoak mugatzeko klausulak itzultzeagatik jasotako kopuruaren trataera fiskala. Horretarako, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudia aldatu da.

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoak xedatzen du Nafarroak, foru araubidea dela-eta, ahalmena daukala bere tributu araubidea ezartzeko, mantentzeko eta arautzeko. Ahalmen horri dagozkion eskumenak erabilia, arautu beharrekoa da Nafarroako zergadunentzat zer zerga-eragin dituen maileguen interes-tipoak mugatzeko klausuletatik eratorritako kopuruaren itzulketak, entitate finantzarioekin eginiko akordioen ondoriozkoak.

Horregatik guztiagatik, berrogeita hamabigarren xedapen gehigarria gehitzen zaio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginari –ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia–, eragina izanen duena indarrean sartu zenetik urtarrilaren 20ko 1/2017 Errege Lege-dekretua, Zoruklausulen alorrean kontsumitzaileak babesteko premiazko neurriei buruzkoa, eta preskribatu gabeko lehenagoko ekitaldietatik. Hona testua:

**Artikulu bakarra.** Xedapen gehigarri berri bat, berrogeita hamabigarrena, gehitzea ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginari.

“Berrogeita hamabigarren xedapen gehigarria. Maileguen interes-tipoak mugatzeko klausuletatik eratorritako kopuruak entitate finantzarioekin eginiko akordioen ondorioz itzultzeagatik edota epaiak edo arbitraje-laudoak betetzeagatik jasotako kopuruaren trataera fiskala.

1. Zerga honen zerga-oinarrian ez da sartuko maileguen interes-tipoak mugatzeko klausulak aplikatu izateagatik lehenago sorturiko interesak direla-eta entitate finantzarioei ordaindutakoak diren kopuruaren itzulketa, haiekin eginiko akordioen ondoriozkoa, esku-diru nahiz bestelako konpentsazio-neurrien bidezkoa, ezta haiei dagozkien ordain-interesak ere.

2. Aurreko idatz-zatian aipatutako itzulketaren xede diren kopuruak, zergadunak aurretiaz ordaindu dituenek, ondoko trataera fiskala izanen dute:

a) Zenbateko horiek aurreko ekitaldietan ohiko etxebizitzan egindako inbertsioagatik kenkariaren zati izan baziren, zenbateko horiek direla-eta kenkaria aplikatzeko eskubidea galduko da; hala, entitate finantzarioarekin akordioa egin zen ekitaldian sorturiko kuota likidoari gehitu beharko zaizkio; soilik, kasuko likidazioaren bidez tributu-zorra zehazteko Administrazioak duen eskubidea preskribaturik ez dagoen ekitaldietan bidegabeki kendutako kopuruak, berandutza-interesak sartu gabe. Aurreko lerrokadan aurreikusitako gehikuntza ez zaie aplikatuko entitate finantzarioak, ukitutako zergadunarekin akordioa egin ondoren, maileguaren printzipala murriztera zuzenean bideraturiko zenbatekoei.

b) Zenbateko horiek gastu kengarritzat hartu baziren halako ekitaldietan non Administrazioak kasuko likidazioaren bidez tributu-zorra zehazteko duen eskubidea preskribaturik ez dagoen, izaera hori galdu egingen dute eta ekitaldi horiei dagokien autolikidazio osagarria egingen da, zehapen, berandutza-interes edo errekar gurik gabe, akordioaren dataren eta zerga honen autolikidazioa aurkezteko hurrengo epea amaitzen den dataren arteko epean.

c) Zergadunak zerga honengatik autolikidazioa aurkezteko epea amaitu gabeko ekitaldietan eta entitate finantzarioarekin kasuko zenbatekoak itzultzeko akordioa egin baino lehen ordaindutako zenbatekoak eta aurreko a) letrako bigarren lerrokadan aipatzen diren zenbatekoak ez dira sartuko ohiko etxebizitzan egindako inbertsioagatik kenkari-oinarrian, eta, halaber, ez dira gastu kengarritzat hartuko.

3. Aurreko idatz-zatietan ezarritakoa aplikatuko da, era berean, 1. idatz-zatian aipatutako kopuru-itzulketa egin bazen ebazpen judizialak edo arbitraje-laudoak exekutatzearen edo betetzearen ondorioz.”

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Jabeldura, Nafarroako politika demografikoari buruzkoa.**

*ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako politika demografikoari buruzkoa.
2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.
3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **JABELDURAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Nafarroako Gobernuarentzako jabeldura, Nafarroako politika demografikoari buruzkoa.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

---

## **Jabeldura, udalez gaindiko plan sektorialen gaineko politika orokorrari buruzkoa.**

*LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkezturiko jabeldura, udalez gaindiko plan sektorialen gaineko politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **JABELDURAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamendua ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Orain dela gutxi egindako agerraldi batean, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak ezagutzera eman zuen udalez gaindiko proiektu sektorialen figura aldatzea aztertzen ari direla, bai eta horietako zenbait aztertzen ari direla ere, antza denez berrikusteko, aldatzeko edo are iraungitzeko ere, Aroztegiko udalez gaindiko proiektu sektorialarekin antza denez proposatzen zen moduan.



Aroztegikoaz gain honako hauek ere aipatu zituen: salestarra, Donapeakoa, Gendulaingoa eta Donejakue Bideko bizitegi-eremukoak, zeina orobat ezagutzen baita “Iruñeko abiadura handiko tren geltoki berriaren ingurukoetakoa” bezala.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuarentzako honako jabeldura hau onartu eta izapidetzea eskatzen dut, Gobernuaren lehen lehendakariorde eta

Garapen Ekonomikoko kontseilariak azal dezan zein den bere departamentuaren eta Gobernu osoaren politika orokorra ekimen horiek guztiei dagokienez eta horiekiko analogiaz iraungitzea planteatu litekeen udalez gairako beste proiektu sektorial batzuei dagokienez.

Iruñean, 2017ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

## **Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Estatuko Aurrekontu Orokorren Lege proiektuan jaso dezan “Memoria Historikoaren Legea” izeneko kontu-sail bat.**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Estatuko Aurrekontu Orokorren Lege proiektuan jaso dezan “Memoria Historikoaren Legea” izeneko kontu-sail bat.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da “Memoria Historikoaren Legea” izeneko kontu-sail bat jaso dezan Estatuko Aurrekontu Orokorren Lege proiektuan.

2007an, Diputatuen Kongresuak abenduaren 26ko 52/2007 Legea onetsi zuen, “Memoria Historikoaren Legea” izenez ere ezagutzen dena. Lege horren bidez, gerra zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubi-

deak aitortzen eta zabalitzen dira, eta haien aldeko neurriak ezartzen dira. Lege horretan, garai hartan gertatu ziren kondena, zehapen eta indarkeria pertsonalaren bidegabekeriaren aldarrikapena egiten da, eta errepresaliatuentzako laguntza proposatzen da, bai eta estatuak biktimak aurkitzen, identifikatzen eta, kasu bada, hobitik ateratzen laguntzea ere. Halaber, altxamendu militarren, gerra zibilaren edo diktaduraren aipamena egiten duen edonolako sinbolo oro kentzeko agintzen du.

Rodríguez Zapateroren Gobernuaren azken legegintzaldian sei milioi euro baino gehiagoko kontu-sail bat baliatu zen legea aplikatzeko, baina 2012an, Rajoy lehendakariaren Gobernua heldu zenean, % 50 baino gehiago murriztu zen kontu-saila (2 milioi ingururaino, eta diru hori ez zen gastatu ere egin).

2013ko aurrekontuetan, kontu-sail hori zero euroan utzi zen, eta hurrengo urteetan Lehendakariak Ministeriotik desagertu zen eta ez da beste inolako ministeriotan jaso.

Legea onetsi zenetik eta 2012ra bitarte, legean proposatzen ziren neurrien betetze-maila handia izan zen: aitortza egiteko adierazpen pertsonalak egin ziren, biktimak jasotzen ari ziren prestazioak hobetu ziren, kolektibo berriei onartu baitzitzaizkien prestazioak (“gerrako umeak” deitutakoei eta homosexualari), hilobien mapa prestatu zen, eta desagertuak aurkitu, hobitik atera eta identifikatzeko protokoloak taxutu ziren, horretarako diru publikoa bideratuz, legeak ezarri bezala. 5.000 biktima baino gehiago atera ziren hobitik.

Bitarte horretan, halaber, Gerra Zibileko Biktimiei Laguntzeko Bulegoa sortu zen, laguntza eta

informazio zentralizatua emateko, eta artxiboetarako sarbiderako prozedura bat taxutu zen, artxibo historikoak barne.

Egindako hori guztia oso ongi azaldu zuen Rajoyk, Nazio Batuen Erakundean agerraldia egin zuenean Pablo de Greiff kontalariak gure herriko justizia, egia eta erreparazioari buruz egindako txostena zela-eta, balioan jarri baitzituen Memoria Historikoaren Legea eta legea garatzeko eta aplikatzeko erabilitako dirua.

Halere, aldi berean, Rajoyren Gobernuak aurrekontuetan neurri horietarako dirua paratzeari utzi zion –bereziki, hobiak aurkitzeko dirua–, erreparazio-adierazpenak gerarazi zituen eta Biktimei Laguntzeko Bulegoa kendu zuen.

Testuinguru horretan, autonomia erkidegoak izan dira memoria historikoari buruzko beren legeak onetsi dituztenak, eta beren aurrekontuetan kontu-sailak ezarri dituzte lege horiek garatzeko, memoriaren aldeko elkarte ezberdinek egindako ahaleginaren osagarri. Gure erkidegoa horren guztiaren adibide garbia da.

Gure ustez, egia, justizia eta erreparazioa lortze aldera autonomia erkidegoek egindako ahale-

gina gorabehera, beharrezkoa izaten segitzen du 52/2007 Legea aurrekontuz hornitzen jarraitzeak, hasiak ziren neurriei segida emateko eta legearen manuetako asko garatzeko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Estatuko Aurrekontu Orokorren proiektuan jaso dezan “Memoria Historikoaren Legea” izeneko kontu-sail bat, eta behar adina funts bidera dezan bertara, memoria kolektiboa berreskuratzeko eta gerra zibilaren eta diktaduraren biktimei aitortza morala egiteko.

Kontu-sail horren bidez honelako proiektuak finantzatzeko dira: hilobi komunak aurkitu eta gorpuak hobitik ateratzekoak, dokumentu historikoak eta biktimei lekukotasunak berreskuratzekoak, desagertutako pertsonen zerrendak egitekoak eta omenaldiak, argitalpenak, dokumentalak, azterlanak, erakusketak edo jardunaldiak egitekoak.

Iruñean, 2017ko otsailaren 1ean

Eleduna: María Chivite Navascués

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alargun-pentsioaren kenkaria, aurrerakina eta osagarria 2017rako ezarritako LGSaren arabera gaurkotu ditzan.**

*NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita alargun-pentsioaren kenkaria, aurrerakina eta osagarria 2017rako ezarritako LGSaren arabera gaurkotu ditzan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun Nuria Medina Santosek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pareka ditzan alargun-pentsioak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin.

Nafarroako Parlamentuak orain dela hamahiru urte baino gehiago erabaki zuen alargun-pentsioa lanbide arteko gutxieneko soldatara heltzen ez den kasuetan Nafarroako Gobernuak pensio horiek osatuko zituela, zenbateko horretara heldu arte. Lorpen sozial hori gizartearen mobilizazio handi baten fruitu izan zen; ez bakarrik alargunena, ezpada herritar guztiena.

Izan ere, ekonomikoki oso ahula da diru-sarrea oso txikiko pensiodunen kolektiboa. Pertsona



zahar horiek bakarrik bizi dira sarri askotan, eta beren etxeetako energia garestitzeak pobreago egiten ditu egunetik egunera.

Hortaz, larria iruditzen zaigu Gobernuak Nafarroan hamar urte baino gehiagoz mantendu den politika publiko hori hautsi izana. Lanbide arteko gutxieneko soldata % 8 igotzea ezartzen duen Errege Dekretuak autonomia erkidegoei bide ematen die prestazio sozial horiek gaurkotzeko. 5.000 pertsona baino gehiago dira eskuratutako eskubide bat urratuta ikusiko dutenak.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du alargun-pentsioaren kenkaria, aurrerakina eta osagarria 2017rako ezarritako LGSaren arabera gaurkotu ditzan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten ditu Hezkuntza eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako departamentuek egindako kanpainak, eskola-aurreinskripzioa egiteko epearen berri ematekoak.**

### *ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten baititu Hezkuntza eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako departamentuek egindako kanpainak, eskola-aurreinskripzioa egiteko epearen berri ematekoak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko parlamentari Alberto Catalán Higuera, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Hezkuntza Departamentuak informazio-kanpaina bat egin ohi du eskola-aurreinskripzioa dela-

eta. Kanpaina horretan, familiei informazioa ematen zaie beren seme-alabak Nafarroako ikastetxeetan hasiera batez matrikulatzeko datei buruz. Halaber, kanpaina horretan familiek beren seme-alabentzat aukeratzeko ahal duten hezkuntza-erakundearen berri ematen da, batez ere lehen aldiz matrikulatzen badira.

Kanpaina hori begirunetsua izan da gurasoek beren seme-alabentzat nahi duten hezkuntza aukeratzeko askatasunari begira, eta sekula ere ez du hizkuntza-eredurik diskriminatu.

Aurten, Hezkuntza eta Erakundeekiko Harremanetako departamentuek kanpaina bana egin dute, hizkuntza-eredu bat –euskarazko irakaskuntza– sustatzen zuena, gainontzeko hizkuntza-ereduen gainera. Erakundeekiko Harremanetako Departamentuaren kasuan, Nafarroako hezkuntza-sistemaren gaineko inolako erantzukizunik eduki gabe. Egoera hori bereziki deigarria izan da Nafarroako eremu ez-euskaldunean, zeinean ez baita inolako erreferentziarik, hitzaldirik edo bilerririk egin familiei euskarazkoa ez den beste hizkuntza-eredurik azaltzeko. Horrek agerian utzi du bi departamentu horiek egindako kanpainaren joera eta sektarismoa.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten ditu Nafarroako Gobernu Hezkuntza eta Erakundeekiko Harremanetako departamentuek egindako

kanpainak, 2017-2018 ikasturterako Nafarroan eskola-aurreinskripzioa egiteko epearen berri ematekoak, ez dutelako errespetatzen gurasoek duten askatasuna, beren seme-alabak zer hizkun-

tza-eredutan matrikulatu nahi dituzten aukeratzekoa.

Corellan, 2017ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, talde politikoen ordezkariak eta Gizarte Zerbitzuen Zorroan jasotako esparru guztietako hirugarren sektoreko erakunde- en ordezkariak osatuta, zorroan jasotako programak, prestazioak eta zerbitzuak berrikusteko.**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lan-mahai bat sor dezan, talde politikoen ordezkariak eta Gizarte Zerbitzuen Zorroan jasotako esparru guztietako hirugarren sektoreko erakunde-  
en ordezkariak osatuta, zorroan jasotako programak, prestazioak eta zerbitzuak berrikusteko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldea, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak xedatzen du gizarte zerbitzuen zorroan ezarriko direla gizarte zerbitzuen sistema publikoko zerbitzuak eta prestazioak.

Zorro hori foru dekretu bidez arautu zen 2008an, arestian aipatutako legean jasotako esku-

bide subjektiboak zehazteko eta gauzatzeko. Zorroan jasotzen dira gizarte zerbitzuen sistema publikoko prestazioak, udal nahiz foru eskumene-  
koak, nafar herritar guztientzat ezarri beharrekoak.

Gure ustez, gizarte zerbitzuen zorroak gaur egun ez die behar bezala erantzuten desgaitasuna eta menpekotasuna duten pertsonen gizarteratzea eta autonomia sustatzearen arloko beharri-  
nei; horrenbestez, ez da bere helburuak erdiesten ari hartzaileen eta horiek ordezkatzeko dituzten elkar-  
tean parte-hartzeari eta bizi-kalitateari dago-  
kienez, prestazio horien diseinuaz, exekuzioaz eta ebaluazioaz denaz bezainbatean.

Sozialisten parlamentu-taldearen ustez, indarrean urte batzuk daramatzalarik, ebaluazio bat egin beharra dago, ikusteko ea arautzen diren prestazioek nola erantzuten dieten herritarren beharri-  
nei ikuspegi biopsikosozial batetik. Errealitate soziala etengabe ari da aldatzen, eta zerbitzuak eta prestazioak errealitate horri doitu beharra dago, pertsona guztien beharri-  
nei hobeki eta eraginkortasun handiagoz erantzuteko.

Prestazioak kudeatzeko eredia nahiz prestazioak berak berrikusi beharra dago, zorroak arautzen dituen esparruetan azaltzen ari diren errealitate berriei erantzun dieten prestazio eta zerbitzu berriak jasotzeko xedez, bai eta azken urteotan autonomia erkidegoetan, nazioan eta nazioartean onetsitako araudi berri-  
an jasotakoak ere (Europako Gobernantzaren Liburu Zuria, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruz NBEak onetsitako adierazpena...).

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan-mahai bat sor dezan bi hilabeteko epean, talde politikoen ordezkariak eta gizarte zerbitzuen zorroan jasotako esparru guztietako hirugarren sektoreko erakundeen ordezkariak osatua, zorroan jasotako programak, prestazioak eta zerbitzuak berrikusteko xedez, haiek legedi indardunari jarraiz gaurkotzeko eta nafar

gizartearen errealitate eta beharizan berriei egokitzeko, halako moduan non, besteak beste, jasoko baitira zahartzeak dakartzan erronkak, desgaitasuna duten pertsonen erabateko gizarteratzea eta espazio soziosanitarioaren garapena.

Iruñean, 2017ko otsailaren 2an

Eleduna: María Chivite Navascués

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernua premia dezan 705/1999 Errege Dekretuko 2. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzera, halako moduan non langabezia-kontingentzia jasoko duten hitzarmen bereziak sinatzen ahalko baitira Gizarte Segurantzarekin.**

### *MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernua premia dezan 705/1999 Errege Dekretuko 2. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzera, halako moduan non langabezia-kontingentzia jasoko duten hitzarmen bereziak sinatzen ahalko baitira Gizarte Segurantzarekin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Erregelamendu Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau Erregelamenduko Batzordean eztabaidatu eta bozka dadila eskatzen du.

Legegintzaldi honetan asmoa dugu Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren erreformari heltzeko; izan ere, arau horrek urte asko darama

indarrean, eta denok uste dugu hobekuntza eta aldaketa handiak egin dakizkiokeela.

Azpimarra jarri beharreko puntu bat litzateke, azken urteotako aldarri sozial eta politikoa biltze aldera, ordezkari politikoak gainontzeko herritarrengandik –eta, zehazki, gure foru erkidegoko gainontzeko langileengandik– urrunarazten dituzten pribilegio eta araubide guztiak kentzea.

Hori dela-eta, gai mingarri eta esplikagaitza da kargua utzi ondoko sariak direla-eta foru parlamentariarentzat indarrean dagoen araubidearena. Halere, Legebiltzar honetan ordezkaturik dauden indar politikoen arteko nolabaiteko adostasuna bide dago langabezia-araubide arruntera igaro beharraz, halako mouan non ordezkari publikoek egiten duten lan publikoak gainontzeko herritarren berme eta eskubide berberak izanen lituzkeen.

Hortaz, oztopoak kendu beharra dago, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren eta gaur egun aplikatzekoa den ordainsari-araubidearen erreforma integrala epe motzean egin ahal izateko. Oztopo horietako bat da 705/1999 Errege-dekretua, apirilaren 30ekoa, autonomia erkidegoko parlamentuek euren kideen mesedetan Gizarte Segurantzaren Administrazioarekin hitzarmen berezia sinatzeari buruzko arauketa aldatu zuena. Errege-dekretuko 2.2 artikulua honako hau dio: "hitzarmen bereziak Araubide Orokorren babes-ekintza osoa hartuko du, salbu eta langabezia-kontingentzia."

Estatu-traba hori kendu egin beharko litzateke, parlamentu autonomiko bakoitzak (ahal dela, guz-

tiek) modu askeagoan arau dezan bere kideen ordainsari-araubidea.

Hori guztia dela-eta, behean sinatzen duen foru parlamentariak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hark Espainiako Gobernua pre-

mia dezan 705/1999 Errege Dekretuko 2. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzera, halako moduan non espresuki onartuko baita Gizarte Segurantzarekin hitzarmen bereziak sinatu ahal izatea, langabezia-kontingentzia jasoko dutenak.

Iruñean, 2017ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza digitalera iragateko estrategia bat taxutu dezan, Foru Erkidegoko haur hezkuntzako ikastetxe, eskola, institutu, lanbide heziketako ikastetxe eta unibertsitate guztiak garai berrietara egokitzeko.**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hezkuntza digitalera iragateko estrategia bat taxutu dezan, Foru Erkidegoko haur hezkuntzako ikastetxe, eskola, institutu, lanbide heziketako ikastetxe eta unibertsitate guztiak garai berrietara egokitzeko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascuésék, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

IKTen iraultza geldiezina da, eta fenomeno digitalean arreta jarri duten azterlan guztien arabera, integrazio teknologikoa modu esponenzialean haziko da hurrengo urteotan; hartara, lan-, industria- eta gizarte-panorama orain arte ezagutu

gabeko automatizatze, robotizatze eta informatizatze mailetara iritsiko da.

Gure foru erkidegoan beren burua prestatzen ari diren haur eta gazteak izanen dira protagonista agertoki berri horretan, zeina ezin aurreikusizkoa baita aldaketek hartuko duten abiaduragatik; alabaina aise aurreikusten ahal dena da agertoki berri horren ardatza zein izanen den: teknologia.

Adingabeentzako Interneteko Seguratsunaren Espainiako Zentroaren arabera, bi eta hiru urteko haur gehienek gailu eramangarriak erabiltzen dituzte jada; hori kontuan hartuta, aukera hori baliatu behar dugu haien esku baliabide pedagogikoak jartzeko, orduan hasi eta beren unibertsitate-prestakuntza edo lanbide-prestakuntza egin arte, datorkigun ingurunean ahalik eta hobekien integratzeko lagun eginen dietenak eta horretarako prestakuntza-emaile izanen zaizkienak.

Samsung-ek eta IPSOSek iaz aurkeztu zuten 'Los profesores ante la tecnología' izeneko txostenaren arabera, Espainiako irakasleen erdiak baino gehiagok uste du ez dutela jaso behar adinako prestakuntzarik tresna berriei ateratzen ahal zaien etekin guztia ateratzeko, eta irakasleen % 92 konbentziturata dago ikasgeletan teknologia ezartzea lagungarria izanen litzatekeela ikasleen trebetasun teknikoak hobetzeko. Txosten horrek berak dio gehiengo handi batek uste duela hezkuntza digital bat mesedegarria dela ikasleen autonomiari begira, areagotu egiten duela ikaste-ko egiten duten ahalegina, hobetu egiten duela zeharkako trebetasunen arloko gaitasuna, erraztu egiten duela lankidetzan, onuragarria dela ikasgelako giroari begira, eta frogatu egiten du haurrek eta

gazteek errazago ulertzen dutela ikasgaia, haien sormena sustatu bidenabar.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiaz du:

– Hezkuntza digitalera iragateko estrategia bat taxutu dezan, foru erkidegoko haur hezkuntzako ikastetxe, eskola, institutu, lanbide heziketako ikastetxe eta unibertsitate guztiak garai berrietara egokitzeko.

– Baliabide teknologikoen gutxieneko zuzkidura exigi dezan ikasgune guztietan, Nafarroa osoan jakintza praktikoa uniforme batzuk bermatzeko.

– Berma dezan Nafarroako hezkuntza-erkidego osoak edukiko dituela beharrezkoak diren gutxieneko gaitasun digitalak, etorkizuneko belaunaldiak jakintza teknologikoa eskura ditzaten beren garapen sozialerako eta laneratzeko.

– Ikastetxe guztietako irakasleentzako prestakuntza-prozesu bat abiaraz dezan, ikasgeletan dauden teknologiak ahalik eta gehien baliatzea bermatzeko, teknologia horien erabilera efizienteez bermatzeko.

– Gurasoentzako eta tutoreentzako aholkularitza-prozesu bat abian jar dezan, horiek ere ezagut dezaten iragate digitalaren prozesua, arloaren ezagutzatik abiatuta partaidea bihurtuz.

Iruñean, 2017ko otsailaren 2an

Eleduna: María Chivite Navascués

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan Nafarroako herrietako pintada bandalikoak ezabatzeko.**

### *UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita neurriak har ditzan Nafarroako herrietako pintada bandalikoak ezabatzeko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko Iñaki Iriarte Lópezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako mozio hau aurkezten du, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita neurriak har ditzan Nafarroako herrietako pintada bandalikoak ezabatzeko.

Trantsizioa hasi zenetik, Nafarroako herri askotan eraso bandaliko ugari gertatu dira, izaera politikoko pintada moduan. Kasu batzuetan, pintada horietan siglak eta leloak agertzen ziren besterik gabe, baina beste batzuetan heriotza-mehatxuak gehitzen ziren, isekak edo irainak igortzen zitzaizkien biktimei edo, zuzenean, indarkeria eta ekintza terroristen egileak goratzen ziren. Pintada horiek ezabatzea udalei bazegokien ere, askotan ez zuten halakorik egiten, edo denbora luzea ematen zuten hura egin arte.

Azken urteotan, zorionez, nabarmen jaitsi da gisa horretako ekintzen maiztasuna, gizarteak horien izaera bandalikoaz eta adierazpen-askatasunarekin batere zerikusirik ez izateaz kontzientzia hartu ahala. Alabaina, joan den udaz geroztik izaera bandaliko pintaden igoera kezkagarria izan da gure erkidegoan. Haietako gehienak ultraezkertiarak eta ultranazionalistak dira, eta beste batzuk eskuin muturrekoak.

Aurtengo urtarrilaren 10ean, Legebiltzar honek EH Bildu, I-E, Geroa Bai eta Podemos-Ahal Duguren mozio bati UPNk aurkeztutako honako zuzenketa hau onetsi zuen: “Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du auzitegietan sala ditzan –Fiskaltzak berehala ofizioz jarduten ez badu–, udalekin eta ukitutako gainerako entitateekin lankidetzan, bai eta, kasua bada, horretarako asmoa ager lezaketen elkarte eta partikularrekin batera, Foru Komunitatean gertatutako izaera politikoko ekintza bandaliko oro, haien erantzuleak identifikatuak izan daitezzen sustatzeko, eta behar den prozedura judiziala ezar dakien.”

Gai honekin loturik, joan den azaroan Nafarroako Gobernuak iragarri zuen ez zuela luzatuko terrorismoa goratzeko pintadak kentze aldera Gobernuaren Ordezkaritzarekin sinatutako lankidetzaprotokoloa. Hitzarmen hori sinatu zen ETA goratzen zuten pintadak ezabatzerakoan zerbait udalek behin eta berriro erakutsitako utzikeria ikusita.

Zabarkeria hori errepika daitekeenez, eta parlamentu honek izaera politikoko ekintza bandaliko- en egileak auzitegietan salatze harturiko erabakiarekiko koherentziaz, beharrezkoa da neurriak hartzea horiek zuzentzen direla bermatzeko, halako moduan non minimizatu eginen baita biktimgan eta orokorrean gizartearen duten eragina.

Horregatik aurkezten dugu erabaki proposamen hau:

**1.** Nafarroako Parlamentuak izaera politikoko ekintza bandaliko guztiekiko arbuioa adierazten du, eta horiek burutzen dituzten talde antolatutak nahiz norbanako isolatuak premiatzen ditu halakoak egiteari utz diezaioten.

**2.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du esku-hartze azkarreko protokolo bat abian jar dezan, halakoa non, udalekin eta toki entitateekin lankidetzan, izaera politikoko pintada bandalikoak azkartasunez ezabatuko baitira; edo, bestela, pintada horiek ezabatze aldera Gobernuaren Ordezkaritzarekin sinatutako lankidetzaprotokoloa berreskuratu eta zabal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López



## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alargun-pentsioak 2017rako ezarritako lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoraino osa ditzan.**

### *MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita alargun-pentsioak 2017rako ezarritako lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoraino osa ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentaltaldeari atxikia dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du:

2017rako lanbide arteko gutxieneko soldata finkatzen duen abenduaren 30eko 742/2016 Errege Dekretuak horren zenbatekoak gaurkotu ditu.

Zenbateko berriak zehazteko, kontuan hartu da ekonomiaren baldintza orokorrek hobera egin izana, halatan soldaten eboluzioa denboran egokiarazteko.

2017rako ezarritako zenbatekoek ehuneko 8ko igoera dakarte, 2016ko urtarrilaren 1etik abenduaren 1era bitartean indarrean zeudenen aldean. Gutxieneko soldata, hortaz, hileko 707,70 eurokoa izanen da (orain, 655 eurokoa da).

Nafarroan, 2007ko urtarrilaren 1etik hona, gutxieneko alargun-pentsioa lanbide arteko gutxieneko soldataren baliokidea da urteko zenbateko gordinari dagokionez, eta hori horrela da Unión del Pueblo Navaroren eta Nafarroako Demokraten Elkargunearen arteko akordio bati esker, Parlamentuaren babesarekin.

Lanbide arteko gutxieneko soldata ezartzeko eskumena Estatuarena da, baina Nafarroak tributuaren arloan daukan eskumen osoaren babesean –Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua)– kenkari fiskal bat ezarri da alargun-pentsioetarako, lanbide arteko gutxieneko soldatari dagokionez betiere (68. artikulua), halako moduan non, gutxieneko soldata hori aldatzen baldin bada, kenkari fiskala ere aldatu beharko baita.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du alargun-pentsioak osa ditzan Nafarroan, Gobernu zentralak 2017rako ezarritako lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoraino. Eta eskatzen da zenbateko hori ezartzen duen errege dekretua onetsi zen unetik aurrerako atzeraeraginez egitea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu gizartearen eta Tarajaleko Biktimen Senitartekoen Elkar-tearen eskaerarekin.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

1. Nafarroako Parlamentuak, Tarajaleko gertaizun hirugarren urteurrena dela eta, bat egiten du gizartearen eta Tarajaleko Biktimen Senitartekoen Elkar-tearen eskaerarekin, eta justizia, egia eta erreparazioa eskatzen du Tarajaleko 15 biktimentzat, honakoak baitira: Soup Tagne, Armand Ferdinand, Dauda Mahama, Larios Fotio, Nana Chimie Roger, Ousman Hassan, Ibrahim Keyta, Jeannot Flame, Bilong Martin Yves, Bikai

Luc Firmin, Blaise Fotchin, Aboubakar Oumaourou Maiga, Samba Baya, Youssouf eta identifikatu gabeko beste bi gazte.

2. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du gizarte-entitateek antolatzen dituzten mobilizazioekin eta haietara joateko dei egiten die hiritarrei, orain dela hiru urte Tarajalen gertatu zena salatzeke”

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu arbuiatu egiten duela jarduketa kultural kaltegarria den emakumeen genitalen ebaketa.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du arbuiatu egiten duela jarduketa kultural kaltegarria den emakumeen genitalen ebaketa, eta emakume eta neskatuen giza eskubideen urraketa dela uste du, alegia, sexuen arteko desberdintasunaren adierazpen bat, emakumeak gizonen azpian uzten dituen sexu-generoko sistema mantendu eta indartzera bideratua.

2. Nafarroako Parlamentuak bere egiten du emakumeen genitalen ebaketa prebenitu, atzeman eta desagerrarazteko konpromisoa, erakunde espezializatuekin elkarlanean, bai eta praktika hori desagerrarazteko egun diren lege-tresnak –nazioartekoak, estatukoak zein autonomia erki-degoetakoak– ezagutu eta sustatzekoa eta, halaber, Nafarroan gai horretan lanean ari diren entitate espezializatuak babesa ematekoa ere”

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere egiten baitu Nafarroako emakumezko alargunekiko konpromisoa, haien pentsioak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzen dituen osagarri ekonomikoa mantentzadain.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bere egiten du Nafarroako emakumezko alargunekiko konpromi-

soa, haien pentsioak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzen dituen osagarri ekonomikoa mantentzadain, orain arte egiten zen bezala”

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere egiten baitu elkarrizketa soziala, Nafarroako Foru Komunitaterako garapen ekonomiko eta sozial orekatu bat lortzeko osagarri funtsezko eta estrategiko gisa.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere egiten baitu elkarrizketa soziala, Nafarroako Foru Komunitaterako garapen ekonomiko eta sozial orekatu bat lortzeko osagarri funtsezko eta estrategiko gisa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua defendatu eta babesten du, eragile ekonomiko eta sozialen eta Foru Administrazioaren arteko topaketa, parte-hartze eta negoziazio instituzionalerako hiruko organo gisa.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du elkarrizketa soziala indar dezan bere eskumenen esparruan, hura sustatzeko politikak eta baliabideak sortuz.

4. Nafarroak Parlamentuak babestu egiten du 2017ko urtarrilaren 25ean Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluko batzorde iraunkorrak sinatutako akordioa, Enplegu Plana negoziatzeko ibilbide-orria ezartzen duena.

5. Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten ditu sindikatu eta enpresa-erakundeen finantzaketa irregularren gaineko akusazioak, Enplegu Planeko programak betetzeari dagokienez.

6. Nafarroako Parlamentuak bere babesa helarazi nahi die Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Kontuen Ganberak egindako lanari, auzian jarri baita, CEN, UGT eta CCOO erakundeek kudeatutako programen kontrolari dagokionez”

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu bere babesaren ematen diola Sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua ezartzen duen azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretuari.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere babesaren ematen diola Sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua ezartzen duen azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretuari.

2. Nafarroako Parlamentuak defendatzen du pertsona guztiek sarbidea izatea aipatu foru dekretuak aitortzen dituen zerbitzu guztietara, edozein dela ere haien egoera administratiboa, foru dekretu berean eta 8/2013 Foru Legean jasotzen den moduan.

3. Nafarroako Parlamentuak babesten du Nafarroako Gobernuak eskura dituen legezko tresna guztiak ezartzea Estatuko Abokatutzak Konstituzio Auzitegian ezarritako errekursoak ez dezan ekar 103/2016 Foru Dekretuaren aplikazioa etetea.

4. Nafarroako Parlamentuak ez dator bat Estatuko abokatutzak aurkeztutako errekursoarekin; izan ere, Konstituzio Auzitegiak bertan behera utzi zuen gure erkidegoko pertsona guztiei osasunlaguntza unibertsala bermatzen dien 8/2013 Foru Legearen artikuluen etetea.”

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu “Mi Voto Cuenta” ekimenarekin, kontzientziaz aldera boto eskubidea, informaziorako sarbidea eta hauteskunde prozesua babestearen garrantziaz, herritar guztiendako baldintza-berdintasunean.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du “Mi Voto Cuenta” ([www.mivotocuenta.es](http://www.mivotocuenta.es)) ekimenarekin, adimen-desgaitasuna edo garapenaren arlokoa duten pertsonak haien familiak, politikariak, botere publikoak eta gizartea, oro har, kontzientziaz aldera boto eskubidea, informaziorako sarbidea eta hauteskunde prozesua babestearen

garrantziaz, herritar guztiendako baldintza-berdintasunean.

2. Nafarroako Parlamentuak gizarte zibileko entitateek antolatzen dituzten mobilizazioekin bat egiten du eta haietara joateko dei egiten die herritarrei, Konstituzio Auzitegiaren epaiak eragindako diskriminazioa salatzeko.”

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, biztanleria aktiboaren gaineko azken inkestak direla-eta Eskubide Sozialetako kontseilariak aipatutako aldaketa metodologikoei buruzkoa.**

*MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, biztanleria aktiboaren gaineko azken inkestak direla-eta Eskubide Sozialetako kontseilariak aipatutako aldaketa metodologikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta

hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

Nafarroan, biztanleria aktiboaren gaineko azken inkestek Nafarroako Enplegu Zerbitzuak baino datu okerragoak eman zituzten; 2016ko IV. hiruhilekoan, aldiz, ez da hala izan. Azken datu horiek ikusita, Laparra lehendakariordeak honako hau adierazi zuen publikoki: “Denborak arrazoiak eman digu. Esan genuen biztanleria aktiboaren gaineko inkestak gutxietsi egiten zuela Nafarroako okupazio-bolumena, eta azkenean detektatu egin du hori. Datu hauek gutxiespen hori zuzentzera datoz, eta gu defendatzen ari ginen joera bat erakusten dute: enplegua gora egiten ari da nabarmen.” Horri gehitu zion aldaketak zerikusia izan duela “aldaketa metodologikoren batekin”, zeinari esker orain “argi eta garbi” ikusten baita enplegua gora egiten ari dela.

– Zeintzuk dira, zehazki, lehendakariordeak bere adierazpenetan aipatzen dituen aldaketa metodologikoak?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 27an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **Galdera, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Foru Legea garatzeko planean jasotako ardatz estrategiko bakoitzerako esleitutako aurrekontuari buruzkoa.**

*ANA SAN MARTÍN ANIZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana San Martín Aniz andreak aurkeztutako galdera, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Foru Legea garatzeko planean jasotako ardatz estrategiko bakoitzerako esleitutako aurrekontuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Ana San Martín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zein da, zehatz-mehatz, Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea garatzeko planean jasotako ardatz estrategiko bakoitzerako esleitutako aurrekontua?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Ana San Martín Aniz

## **Galdera, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Foru Legeak garatutako neurriei buruzkoa.**

*ANA SAN MARTÍN ANIZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana San Martín Aniz andreak aurkeztutako galdera, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Foru Legeak garatutako neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Ana San Martín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea garatzeko planean 80 neurri planteatu dira, eta, kronogramaren arabera, horietako gehienak ezartzen hasiak dira.

Zeintzuk dira egin diren jarduketak? Banan-banan zehaztea eskatzen dut.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Ana San Martín Aniz



## **Galdera, hondakinei buruzko 2017tik 2027ra bitarteko Planean errefus-zatiari ematen zaion tratamenduari buruzkoa.**

*MARÍA CARMEN SEGURA MORENO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztutako galdera, hondakinei buruzko 2017tik 2027ra bitarteko Planean errefus-zatiari ematen zaion tratamenduari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko Mari Carmen Segura Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin ditu, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Hondakinei buruzko 2017tik 2027ra bitarteko Planak ez du jasotzen izaera publikoko azpiegitura berririk paratzea errefusaren aurretratamendurako; izan ere, aurreikuspenen arabera, 2014an sortu zenaren erdira jaitsiko da errefusa, eta planaren arabera Tuterako eta Cárcarko plantak nahikoa dira Nafarroan sortzen den errefus guztia tratatzeko.

– Horrek esan nahi du planta horietara eramanez delako Nafarroa osoko errefusa –Iruñekoa barne–, plan horren arabera hain garrantzitsua den gertutasun-printzipioa urratuz?

– Zer beste aukera aintzat hartzen dira Iruñerriko errefuserako?

– Zer beste aukera aintzat hartzen dira errefuserako, hori behar bezala tratatua ez deneko hondakin-mankomunitateetan?

– Zer epe darabiltzate aukera horiei dagokionez?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: María Carmen Segura Moreno

## **Galdera, hondakinak instalazio txiki eta ertainetan balorizatzeari buruzkoa.**

*MARÍA CARMEN SEGURA MORENO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztutako galdera, hondakinak instalazio txiki eta ertainetan balorizatzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko Mari Carmen Segura Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten ditu, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Hondakinei buruzko 2017tik 2027ra bitarteko Plana dela-eta:

– Ados al zaudete hondakinak instalazio txiki eta ertainetan balorizatzearekin?

– Ados al zaudete hondakinen arloan beste erkidego batzuekin lankidetzan aritzearekin? Baiezkoan, zehaztu zein alderditan eta zein erkidegorekin.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Mari Carmen Segura Moreno

---

**Galdera, Tokiko Mapa Hondakinei buruzko 2017tik 2027ra bitarteko Planarekin uztartzeari buruzkoa.**

*MARÍA CARMEN SEGURA MORENO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztutako galdera, Tokiko Mapa Hondakinei buruzko 2017tik 2027ra bitarteko Planarekin uztartzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko Mari Carmen Segura Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten ditu, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

– Tokiko Mapa nola uztartuko da Hondakinei buruzko 2017tik 2027ra bitarteko Planarekin?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Mari Carmen Segura Moreno

## **Galdera, Góngora handitzeari eta Iruñerrirako balizko zabortegeiei buruzkoa.**

*MARÍA CARMEN SEGURA MORENO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztutako galdera, Góngora handitzeari eta Iruñerrirako balizko zabortegeiei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentaldeko Mari Carmen Segura Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten ditu, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Hondakinei buruzko 2017tik 2027ra bitarteko Planak ez du suntsitze-azpiegitura berririk jasotzen, eta Cárcarko eta Tuterako El Culebrete zabortegeiak mantentzea aurreikusten du, horien erabilera-bizitza oinarri, eta bi horiek handitzea darabil gogoan.

Góngorako zabortegei dagokionez –2022an ixtea dago aurreikusita–, planak onartzen du hitzarmenaren indarraldiaz haragoko ahalmena duela.

– Gobernuak Góngora handitzea exigituko al du?

– Zer epe darabil Iruñerrirako balizko zabortege berrirako? Erabaki hori hartzeko eskumena Iruñerriko Mankomunitatearena ala zurea da?

– 2022rako prest ez badago, eta Cárcarko eta El Culebreteko handitzeak kontuan hartuta,

– Gobernu honek gogoan al darabil Nafarroako hondakin guztiak bi eremu horietan lurperatzea? Ezezkoan, zer aukera darabil gogoan?

– Gobernuak ba al du ahalmenik mankomunitate ezberdinen hondakinen kudeaketari buruz erabakitzeke?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Mari Carmen Segura Moreno

## **Galdera, 14/2015 Foru Legeko ekintza planean aurreikusitako neurriei buruzkoa.**

*ANA SAN MARTÍN ANIZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana San Martín Aniz andreak aurkeztutako galdera, 14/2015 Foru Legeko ekintza planean aurreikusitako neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen Ana San Martín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten dizkio Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun diezazkion:

14/2015 Foru Legeko ekintza-planean aurreikusitako neurrietako bat da hezkuntzaren esparrutik prebenitzea emakumeen aurkako indarkeria, eta horretarako proposatzen da:

– Ikastetxeetan genero-ikuspegia jasotzea eta curriculumetan esku hartzea.

– Testuliburuak eta hezkuntza-materialak gaurkotzea.

– Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta genero-diskriminaziorik eza sartzea Nafarroako hezkuntza-sisteman.

Jarduketa-kronogramaren arabera, neurri horiek guztiak abian dira. Beraz, zer egin da horri dagokionez? Zein da neurri horien kostua? Zer kontu-saili eragiten die?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Ana San Martín Aniz

## **Galdera, biztanleria aktiboaren gaineko inkestaren kalkuluari begira Estatuko Estatistika Institutuak egindako aldaketa metodologikoei buruzkoa.**

*JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, biztanleria aktiboaren gaineko inkestaren kalkuluari begira Estatuko Estatistika Institutuak egindako aldaketa metodologikoei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Juan Luis Sánchez de Muniáin foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamendua ematen dizkion ahalmenez baliatuz, honako gal-

dera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Iragan urtarrilaren 27an –ostirala baitzen–, Eskubide Sozialetako kontseilariak adierazi zuen, biztanleria aktiboaren gaineko inkesta argitaratu zelarik, “aldaketa metodologikoren bat” egin zela biztanleria aktiboaren gaineko inkestako kalkulu estatistikoa egiteko. Inkesta horretako datuen garrantzia eta Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Nafarroako Gobernuako Ogasun Departamentuaren arteko lotura kontuan hartuta,

– Kontseilariak aipatzen duen zer aldaketa metodologiko egin du Estatistikako Institutu Nazionalak, biztanleria aktiboaren gaineko inkestako kalkulua egiteko?

– Zenbat pertsonari eragiten diote aldaketa horiek?

– Noiz egin dira aldaketa horiek, eta zergatik ez dira jendaurrean azaldu?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

## **Galdera, “Nuevo Futuro Navarra” elkartearekiko hitzarmena berritzeari buruzkoa.**

*MÓNICA DOMENECH LINDE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Domenech Linde andreak aurkeztutako galdera, “Nuevo Futuro Navarra” elkartearekiko hitzarmena berritzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Mónica Doménech Linde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak idatziz erantzun dezan:

– “Nuevo Futuro Navarra” elkartearekiko hitzarmena 2016ko urriaren 1ean amaitu zen. Zertan da hitzarmenaren berritzea?

Iruñean, 2017ko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

## **Galdera, Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen ez duten D ereduko ikasliburuei edo beste edozein euskarriri buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen ez duten D ereduko ikasliburuei edo beste edozein euskarriri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

– Hezkuntza Departamentuak detektatu al du Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen ez duen ikaslibururik edo beste edozein euskarririk D ereduko ikastetxeetan?

– Zer ikastetxetan? Zehaztu detektatutako urraketak.

Corellan, 2017ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, 2017-2018 ikasturterako aurreinskripzioa egiteko epeaz informatze aldera Euskararen Nafar Institutuak egindako kanpainaren gastuari buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, 2017-2018 ikasturterako aurreinskripzioa egiteko epeaz informatze aldera Euskararen Nafar Institutuak egindako kanpainaren gastuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikitako Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

– Zein da 2017-2018 ikasturterako aurreinskripzioa egiteko epeaz informatze aldera Euskararen Nafar Institutuak egindako kanpainaren gastu xehakataua?

Zehaztu kostua eta hizkuntza-eredu bakoitzerako erabiltzen ari diren euskarriak (irratiragarkiak, prentsa-iragarkiak, eta abar), zer irratik eman dituen iragarkiak (titulartasuna eta irratia koka-lekua) eta zer idatzizko hedabide erabili diren (titulartasuna eta zabalkunde-eremua).

Corellan, 2017ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, Fiteroko kontsultategi medikoaren egoerari buruzkoa.**

*BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jasok aurkeztutako galdera, Fiteroko kontsultategi medikoaren egoerari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok honako galdera hauek egiten ditu, idatziz erantzuteko:

2012ko urtarrilean, Nafarroako Gobernuak iragarri zuen kontsultategi mediko berri bat eraikiko zuela 2013a bukatu orduko, udaletxearen etxabearen dagoen gaur egungoa ordeztuko; izan ere, gaur egungoak gabezia handiak ditu irisgarritasunari, espazioari eta baliabide materialei dagokienez.

Guardia Zibilaren kuartela eraikitzeak aukeratu zen udalaren zuzkidura-lurzati bateko lurretan aurreikusitako zen kontsultategi berria eraikitzea. Fite-



roko Udalak –UPNren eskuetan baitago– Barne Ministerioari doan laga zion lurzattia, eta, testuinguru horretan, UPNren Gobernuak geldiarazi egin zuen kontsultategirako aurreikusita zegoen 500.000 euroko kontu-saila. Harrezkero, ez da mahai gainean ordezko aukerarik jarri, eta ez daki-gu osasun-proiektu horri berriro heltzea aurreikus-ten den ala ez.

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

Harremanik izan al duzue Fiteroko Udalarekin, kontsultategiaren auzia aztertzeke eta egungo

gabeziak konponduko lituzketen aukerak planteatzeke?

Osasun Departamentuak ba al du asmorik kontsultategi berria eraikitzeke proiektuari berriro heltzeke? Hala baldin bada, zer epetan?

Osasun Departamentuak zer ekarpen egiten du egungo kontsultategia mantentzen laguntzeke? Departamentuak ba al du kontsultategi horretarako baliabideak handitzeke asmorik?

Iruñean, 2017ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

## **Galdera, LOMCEk Lehen Hezkuntzako seigarren mailaren amaierarako ezartzen duen kanpo-ebaluazioari buruzkoa.**

*MARÍA ESTHER KORRES BENGOETXEA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Esther Korres Bengoetxea andreak aurkeztutako galdera, LOMCEk Lehen Hezkuntzako seigarren mailaren amaierarako ezartzen duen kanpo-ebaluazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Esther Korres Bengoetxea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

LOMCEk xedatzen du Lehen Hezkuntzako seigarren mailan ebaluazio diagnostiko bat egin behar dela Espainiako estatu osoan.

Hori dela-eta, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ebaluazio diagnostikoari buruzko honako galdera

hauek egiten dizkio Hezkuntzako kontseilariari, idatziz erantzun ditzan:

Galderak:

1. Zein da ebaluazio horren helburua?
2. Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ebaluazio diagnostikoa LOMCEren arabera al da?
3. Nork taxutuko du Lehen Hezkuntzako seigarren mailako proba?
4. Zer irizpideren arabera taxutuko da Lehen Hezkuntzako seigarren mailako proba?
5. Nola ebaluatuko dira zeharkako gaitasunak?
6. Ikastetxeei nola emanen zaie proba honi buruzko informazioa?
7. Zer informazio emanen zaie ikastetxeei? Eta familiei? Eta irakasleei?
8. Interesdun guzti horiek noiz izanen dira horretaz informatuak? (Ikasturtearen bigarren hiru hilekoan gaude eta probak bost hilabete barru –ekainean– egin beharko lirateke).
9. Noren ardura izanen da ikasleei azterketa egitea?
10. Zer prestakuntza izan beharko dute aztertaileek?
11. Hizkuntza-eskakizunik eskatuko al zaie aztertaile horiei? Zein?
12. Zenbat pertsonak eginen dute lan hori? Zer lan-baldintzatan?

- |  |   |
|--|---|
| 13. Nork kontratatuko ditu pertsona horiek?  | 24. Zer hizkuntzatan egin beharko dira probak?  |
| 14. Zer irizpideri jarraikiz?  | 25. Ikasleek euren ikastetxean bertan eginen al dituzte probak?   |
| 15. Nork zuzenduko ditu probak?  | 26. Ikastetxean egiten ez badira, non eginen dituzte?   |
| 16. Zein izanen da Ikuskaritzaren zeregina?  | 27. Ikastetxeak proba horiek egitera behartuta al daude?  |
| 17. Non argitaratuko dira proben emaitzak?   | 28. Ikastetxe bakoitzeko zer organok erabaki beharko du proba horiek egiten diren ala ez?                           |
| 18. Emaitzak argitaratu nahi dituzten ikastetxeek, hori egiteko aukerarik izanen al dute?            | 29. Irakasle batek probak egiteari ezetz esaten badio, zer ondorio jasan ditzake?                                   |
| 19. Proba horrek tokirik izanen al du LOMCE-ren aplikazioaren jarraipena egiteko estatuko webgunean? | 30. Ikasle bat, arrazoiak arrazoi, proba egiten den egunean ez baldin badago, beste egun batean egin beharko al du? |
| 20. Zer data zehaztuta egiten da proba?  | Iruñean, 2017ko otsailaren 2an  |
| 21. Noiz arte luzatuko da proba egiteko epea?  | Foru parlamentaria: Esther Korres Bengoetxea  |
| 22. Zenbat egun iraunen du probak?   |   |
| 23. Zer ikasgai ebaluatuko dira?   |   |

## **Galdera, LOMCEk Batxilergoko 2. mailaren amaierarako ezartzen duen kanpo-ebaluazioari buruzkoa.**

### *MARÍA ESTHER KORRES BENGOETXEA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Esther Korres Bengoetxea andreak aurkeztutako galdera, LOMCEk Batxilergoko 2. mailaren amaierarako ezartzen duen kanpo-ebaluazioari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Esther Korres Bengoetxea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

LOMCEk xedatzen du Batxilergoko bigarren mailaren amaieran ebaluazio diagnostiko bat egin behar dela Espainiako estatu osoan. Proba hori "Selektibitatearen ordezkotza" deitu izan da.

Hori dela-eta, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak honako galdera hauek egiten dizkio Hezkuntzako kontseilariari, Batxilergoko bigarren mailaren amaierarako ebaluazio diagnostikoari buruzkoak, idatziz erantzun ditzan:

Galderak:

1. Zein da ebaluazio horren helburua?

2. Batxilergoko bigarren mailako ebaluazio diagnostikoa LOMCEren arabera al da?

3. Nor izanen da ebaluazioaren arduraduna? Unibertsitatea? Hezkuntza Departamentua? Ikastetxeak?

4. Nor arduratuko da bigarren mailako proba taxutzeaz?

5. Zer irizpideren arabera taxutuko da Batxilergoko bigarren mailako proba?

6. Nola ebaluatuko dira zeharkako gaitasunak?

7. Ministerioak Estatu osorako ezarritako adierazle eta estandarrei egokituko al zaie, Madrileko errege dekretuek xedatzen duten moduan?

8. Unibertsitatean sartzearen ondorioetarako, Estatu osorako unibertsitate-barruti bakarrerako balioko al du?

9. Batxilergoko zer mailatako edukiei buruzkoa izanen da proba?

10. Proban sartuko al da batxilergoko lehen mailan bakarrik ematen den ikasgaren bat (filosofia)?

11. Ikastetxeei nola emanen zaie proba honi buruzko informazioa?

12. Zer informazio emanen zaie ikastetxeei? Eta familiei? Eta irakasleei?

13. Interesdun horiek guztiak noiz izanen dira horretaz informatuak? (Ikasturtearen bigarren hiru hilekoan gaude eta proba bost hilabete barru –ekainean– egin beharko litzateke).

14. Selektibitateko lehengo probetan bezala, informazio eta koordinazio bilerarik eginen al da ikastetxeetako irakasleekin?

15. Noren ardura izanen da ikasleei azterketa egitea?

16. Zer prestakuntza izan beharko dute aztertzaileek?

17. Hizkuntza-eskakizunik eskatuko al zaie aztertzaile horiei? Zein?

18. Zenbat pertsonak eginen dute lan hori? Zer lan-baldintzatan?

19. Nork kontratatuko ditu pertsona horiek?

20. Zer irizpideri jarraikiz?

21. Nork zuzenduko du proba?

22. Zein izanen da Ikuskaritzaren zeregina?

23. Zein izanen da NUPen zeregina?

24. Ikasleek berariazko matrikularik egin beharko dute proba hori egiteko? Noiz? Non? Tasarik ordaindu beharko dute? Zenbatekoa?

Iruñean, 2017ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Esther Korres Bengoetxea

## **Galdera, LOMCEk Lehen Hezkuntzako hirugarren mailaren amaierarako ezartzen duen kanpo-ebaluazioari buruzkoa.**

*MARÍA ESTHER KORRES BENGOETXEA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Esther Korres Bengoetxea andreak aurkeztutako galdera, LOMCEk Lehen Hezkuntzako hirugarren mailaren amaierarako ezartzen duen kanpo-ebaluazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Esther Korres Bengoetxea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

LOMCEk xedatzen du Lehen Hezkuntzako hirugarren mailan ebaluazio diagnostiko bat egin behar dela Espainiako estatu osoan.

Hori dela-eta, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako ebaluazio diagnostikoari buruzko honako galdera hauek egiten dizkio Hezkuntzako kontseilariari, idatziz erantzun ditzan:

Galderak:

1. Zein da ebaluazio horren helburua?

2. Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako ebaluazio diagnostikoa LOMCEren arabera al da?

3. Nork taxutuko du Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako proba?
4. Zer irizpideren arabera taxutuko da Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako proba?
5. Nola ebaluatuko dira zeharkako gaitasunak?
6. Ikastetxeei nola emanen zaie proba honi buruzko informazioa?
7. Zer informazio emanen zaie ikastetxeei? Eta familiei? Eta irakasleei?
8. Interesdun horiek guztiak noiz izanen dira horretaz informatuak? (Ikasturtearen bigarren hiru hilekoan gaude eta probak bost hilabete barru –ekainean– egin beharko lirateke).
9. Noren ardura izanen da ikasleei azterketa egitea?
10. Zer prestakuntza izan beharko dute aztertzaileek?
11. Hizkuntza-eskakizunik eskatuko al zaie aztertzaile horiei? Zein?
12. Zenbat pertsonak eginen dute lan hori? Zer lan-baldintzatan?
13. Nork kontratatuko ditu pertsona horiek?
14. Zer irizpideri jarraikiz?
15. Nork zuzenduko ditu probak? Zein izanen da lkuskaritzaren zeregina?
17. Non argitaratuko dira proben emaitzak?
18. Emaitzak argitaratu nahi dituzten ikastetxeek, hori egiteko aukerarik izanen al dute?
19. Proba horrek tokirik izanen al du LOMCE-ren aplikazioaren jarraipena egiteko estatuko webgunean?
20. Zer data zehatzetan eginen da proba?
21. Noiz arte luzatuko da proba egiteko epea?
22. Zenbat egun iraunen du probak?
23. Zer ikasgai ebaluatuko dira proban?
24. Zer hizkuntzatan egin beharko da proba?
25. Ikasleek euren ikastetxean bertan eginen al dute hirugarren mailako proba?
26. Ezin baldin bada ikastetxean egin, non eginen da?
27. Ikastetxeak behartuta al daude proba horiek egitera?
28. Ikastetxe bakoitzeko zer organok erabaki beharko du proba hori eginen den ala ez?
29. Irakasle batek proba egiteari ezetz esaten badio, zer ondorio jasan ditzake?
30. Ikasle bat, arrazoiak arrazoi, proba egiten den egunean ez baldin badago, beste egun batean egin beharko al du?

Iruñean, 2017ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Esther Korres Bengoetxea

## **Galdera, LOMCEk Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailaren amaierarako ezartzen duen kanpo-ebaluazioari buruzkoa.**

*MARÍA ESTHER KORRES BENGOETXEA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Esther Korres Bengoetxea andreak aurkeztutako galdera, LOMCEk Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailaren amaierarako ezartzen duen kanpo-ebaluazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Esther Korres Bengoetxea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

LOMCEk xedatzen du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailan ebaluazio diagnostiko bat egin behar dela Espainiako estatu osoan.

Hori dela-eta, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak honako galdera hauek egiten dizkio Hezkuntzako kontseilariari, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailaren amaierako ebaluazio diagnostikoari buruzkoak, idatziz erantzun ditzan:

Galderak:

1. Zein da ebaluazio horren helburua?
2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailako ebaluazio diagnostikoa LOMCEren araberakoa al da?
3. Nork taxutuko du DBHko laugarren mailako proba?
4. Zer irizpideren arabera taxutuko da DBHko laugarren mailako proba?
5. Nola ebaluatuko dira zeharkako gaitasunak?

6. Ikastetxeei nola emanen zaie proba honi buruzko informazioa?

7. Zer informazio emanen zaie ikastetxeei? Eta familiei? Eta irakasleei?

8. Interesdun horiek guztiak noiz izanen dira horretaz informatuak? (Ikasturtearen bigarren hiru hilekoan gaude eta probak bost hilabete barru –ekainean– egin beharko lirateke).

9. Noren ardura izanen da ikasleei azterketa egitea?

10. Zer prestakuntza izan beharko dute aztertzailleek?

11. Hizkuntza-eskakizunik eskatuko al zaie aztertzaille horiei? Zein?

12. Zenbat pertsonak egingen dute lan hori? Zer lan-baldintzatan?

13. Nork kontratatuko ditu pertsona horiek?

14. Zer irizpideri jarraikiz?

15. Nork zuzenduko du proba?

16. Zein izanen da Ikuskaritzaren zeregina?

17. Non argitaratuko dira probaren emaitzak?

18. Emaitzak argitaratu nahi dituzten ikastetxeek, hori egiteko aukerarik izanen al dute?

19. Proba horrek tokirik izanen al du LOMCEren aplikazioaren jarraipena egiteko estatuko webgunean?

20. Zer data zehatzetan egingen da proba?

21. Noiz arte luzatuko da proba egiteko epea?

22. Zenbat egun iraunen du probak?

23. Zer ikasgai ebaluatuko dira proban?

24. Zer hizkuntzatan egin beharko da proba?

25. Ikasleek euren ikastetxean bertan egingen al dute proba?

26. Ezin baldin bada ikastetxean egin, non egingen da?

27. Ikastetxeak proba horiek egitera behartuta al daude?

28. Ikastetxe bakoitzeko zer organok erabaki beharko du proba hori egingen den ala ez?

29. Irakasle batek proba egiteari ezetz esaten badio, zer ondorio jasan ditzake?

30. Ikasle bat, arrazoiak arrazoi, proba egiten den egunean ez baldin badago, beste egun batean egin beharko al du?

Iruñean, 2017ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Esther Korres Bengoetxea

---



---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Kontuen Ganberako 2017. urterako plantilla organikoa eta 2016ko abenduaren 31ko funtzionario-zerrenda.**

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiek hurrenez hurren xedatzen dute urtero onetsi behar direla erakunde horren zerbitzuko langileen plantilla organikoa eta erakunde horren aurreko urteko abenduaren 31ko funtzionario-zerrenda.

Hartara, ikusita erakundeko idazkari nagusiak urtarrilaren 17an aurkeztutako proposamena, Ganberako administratzaileak, kontu-hartzaileak eta zerbitzu juridikoen eginiko aldeko txostenak jaso ondotik, eta Kontuen Ganberako Langileen Batzordea informatu eta hari entzun ondotik, lehendakari naizen aldetik, nire ahalmen eta esku-menak baliatuta, ondokoa

EBATZI DU:

**Lehenengoa.** Nafarroako Kontuen Ganberako 2017. urterako plantilla organikoa onestea, zeina ebazpen honen 1. eranskin gisa atxikirik baitago.

**Bigarrena.** Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionarioen 2016ko abenduaren 31ko zerrenda onestea, zeina ebazpen honen 2. eranskin gisa atxikirik baitago.

**Hirugarrena.** Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Mahaiari igortzea, ezagut dezan eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agin dezan, eta Kontuen Ganberaren web orrian argitaratzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

## 1. Eranskina

## Kontuen Ganberako plantilla organikoa 2017. urterako

Lanpostua	Kopurua	Maila	Araubide juridikoa	Euskara maila	Izendapen librekoak	Esklusibitate	Lanpostua	Berariazko osagarria	Berariazko osagarria
Lehendakariaren idazkaria	1		G		X				
Idazkari Nagusia	1	A	F		X	55	80,80		35
Auditorea	4	A	F			55	80,80		10
Auditorea	1	A	F	C1		55	80,80		10
Legelaria	2	A	F			55	63,80		
Kazetari-itzultzailea	1	A	F	C1		55	63,80		
Informatikako goi mailako teknikaria	2	A	F			55	40,80		
Auditoretzako teknikari-Kontu-hartzailea	1	B	F			55	50,20		20
Auditoretzako teknikaria	18	B	F			55	50,20		
Auditoretzako teknikaria	3	B	F	C1		55	50,20		
Administratzailea:	1	C	F		X	55	58,00	12	
Administraria	5	C	F				46,18	12	
Administraria	1	C	F	C1			46,18	12	
Sistema informatikoetako ofiziala	1	C	F				46,18	12	
Mandataria	1	D	F	B2			36,50	15	
<b>GUZTIRA</b>	<b>43</b>								

F: funtzionarioa

G: Kabineteko behin-behineko langilea – izendapen librekoa

**2. eranskina**  
**Nafarroako Kontuen Ganberaren Zerbitzuko**  
**2016ko abenduaren 31ko funtzionario-zerrenda**

Izen-abizenak	Maila	Gradua	Lanpostua	Administrazio egoera
Ordoki Urdazi, Luis M <sup>a</sup>	A	7	Idazkari Nagusia	Jardunean
Cabeza del Salvador, José Ignacio	A	7	Auditorea	Jardunean
Moreno Orduña, Karen	A	3	Auditorea	Jardunean
Muruzábal Lerga, Jesús Salvador	A	7	Auditorea	Jardunean
Olaechea Estanga, M <sup>a</sup> Asunción	A	6	Auditorea*	Zerbitzu bereziak
Lanpostu hutsa	A	-	Kontuikuskaria	-
Ezquerro Royo, José Luis	A	7	Legelaria	Jardunean
Sánchez Lerma, Gemma Angélica	A	4	Legelaria	Jardunean
Arrieta Gutiérrez, Francisco Javier	A	7	Goi mailako tek. Sistema	Jardunean
Lanpostu hutsa	A	-	Goi mailako tek. Sistema	-
Erbiti Zabalza, Fermín	A	5	Kazetari-itzultzailea*	Jardunean
Biurrun Martiarena, José Miguel	B	7	Auditoretzako teknikari-Kontu-	Jardunean
Aurrecochea Gutiérrez, Miguel Ángel	B	6	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Azcona Díez de Ulzurrun, M <sup>a</sup> Carmen	B	7	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Balduz Gil, Elvira	B	6	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Bobadilla Bacaicoa, M <sup>a</sup> Pilar	B	7	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Etayo Salazar, Francisco José	B	7	Auditoretzako teknikaria	Zerbitzu bereziak prestakuntza
Fernández Renedo, Blanca Esther	B	7	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Gil Ochoa, M <sup>a</sup> Antonia	B	7	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Herrera Isasi, M <sup>a</sup> Begoña	B	3	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Irigoyen Olaiz, M <sup>a</sup> Lourdes	B	7	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Marticoarena Chapa, Xavier Iñigo	B	5	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Martinikorena Matxain, Miren Edurne	B	3	Auditoretzako teknikaria*	Jardunean
Navarro Pérez, Saioa	B	1	Auditoretzako teknikaria	Jardunean praktikaldian
Rodríguez Jiménez, Ainara	B	2	Auditoretzako teknikaria*	Jardunean
Sabalza Navallas, Marta	B	1	Auditoretzako teknikaria	Jardunean praktikaldian
Sarasa Amatriain, Nuria:	B	1	Auditoretzako teknikaria	Jardunean praktikaldian
Zudaire Echávarri, Antonia Aurora	B	7	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Zudaire Echávarri, Rosa Isabel	B	7	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Lanpostu hutsa	B	-	Auditoretzako teknikaria	-
Fernández Goñi, Joxe Julen	C	7	Administratzailea:	Jardunean
Casado Redín, Cristina	C	6	Administraria	Jardunean
Elizalde Del Rincón, Teresa	C	6	Administraria	Jardunean
Elizalde Elizalde, M <sup>a</sup> Julia	C	7	Administraria*	Jardunean
Lander Laurenz, M <sup>a</sup> Isabel	C	6	Administraria	Jardunean
Pérez de Albéniz Andueza, M <sup>a</sup> Francisca	C	6	Administraria	Jardunean
Lanpostu hutsa	C	-	Administraria	-
Pueyo Resano, Francisco Javier	C	5	Ofizial tek. Sistema informatikoak	Jardunean
Erburu Elizondo, Fernando	D	7	Mandataria*	Jardunean

\* Euskararen ezagutzarekin

